

## **Laudioko Udala**

### **Arkitekto Tekniko, Eraikuntzako Ingeniari edo Aparejadore lanetan aldi baterako zerbitzuak prestatzeko Lan Poltsa.**

Laudio Udaleko Gobernu Batzarrak, 2015eko martxoaren 6an izandako bileran, ondorengo erabakia hartu du:

Onartzea lan poltsa bat sortzeko deialdiko ondorengo oinarriak Arkitekto Tekniko, Eraikuntzako Ingeniari edo Aparejadore langile legez aldi baterako zerbitzuak prestatzeko.

### **Deialdiko oinarri arauak**

#### **Lehena.- Deialdiaren Xedea.**

1.1.- Deialdi honen objektua da sortzea lan poltsa hauxe: Arkitekto Teknikoa, Eraikuntza Ingeniaria edo Aparejadorea, sailkapen taldea: A2, lanpostu osagarria: 22, osagarri espezifikoa: 20.029,69 euro, Laudio Udaleko langile beharrianak bitarteko funtzionario langileen bidez betetzeko, funtzionarioen aldi baterako ordezkapenak direla eta (bajak, oporrak eta lan-hitzarmenean aurreikusitako baimenak), edo noiz behinkako zereginak beraiek erabat, guztiz eta oso-osorik gauzatu ezin dituztenak burutzen laguntzeko.

1.2.- Lan poltsaren bidez hornitu beharreko postua Lan Postuen Zerrendan (LPZ) islatuta dago (zereginak metatzeagatiko edo obra-lan edo zerbitzu jakin bat egin beharragatik, noizean behin gauzatuen salbuespenez).

1.3.- 2015 urterako Estatuko Aurrekontu Orokorretako abenduaren 26ko 36/2014 Legeko 21. artikuluan xedatuta dakarrenarekin bat, bitarteko funtzionario langile izendatzeko oinarriok badira salbuespeneko kontratazioak egiteko eta Udaleko funtsezko zerbitzu publikoen funtzionamenduari zuzenean eragiten diotela lehentasunezko zat jotako premiazko, luza eta geroraezineko beharrianak eta funtzioak betetzeko (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 25. eta 26. artikulua).

#### **Bigarrena.- Lanpostuaren funtzioak: momentu bakoitzean funtzioen katalogoan indarrean daudenak eta horiek dira, gaur egun.**

- Garatzea programak, proiektuak eta ekintza-planak bere arlo profesionalari dagozkionak, hala eskatuta, nola bere ekimen propioz.
- Parte hartzea obra, lan edota material, makineria, e.a., esleipen prozesuetan, proiektatuak egikaritu eta gauzatuko dituzten enpresak kontratatuzko.
- Aholkularitza tekniko eta aurrekontuen arlokoa Korporazioari eta hala eskatzen udalbatzako kideei, hala nola bere eskumen espezifikoaren barruan informazio hori beharrezkoa egiten zaien gainerako udaleko sail eta arloei.
- Udal obren exekuzio egokiaren zuzendaritza eta kontrola.
- Bere eskumenen barruan egindako obren edota lanen Ziurtagiriak.
- Balorazio-memorien erredakzioa.
- Bere arlo barruan oin berriko proiektuak idaztea eta erredaktatzea (memoria, segurtasuneko azterlana, aurrekontua, baldintzen plegua eta atal grafikoa).
- Delineatzaileen lana zuzentzea.
- Aholkularitza obra lanetako aurrekontuen arloan.
- Obra lan txikiak eta jarduerak zabaltzeko lizentzien espedienteak izapidetzea.

- Udalerriaz gaindikoa eta udalerriz barneko koordinazioa moldatuta, hala behar bada, programaturiko diren ekitaldi edota lan-bileretara egokitzeko.
- Bere nagusi hierarkikoek agindutako antzeko zereginak guztiak eta osagarriak, lanpostuaren zereginekin zerikusia dutenak.

### **Hirugarrena.- Izangaien Betebeharrak.**

a) Europar Batasuneko estaturen bateko naziotasuna izatea; edo, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsita nazioarteko Itunen aplikazioaren indarrez, langileen zirkulazio askea aplikagarri zaiona.

Halaber, parte har dezakete Europar Batasuneko kide diren estatuak naziotasuna duten ezkontideek, betiere ez badaude auzi-bidez berezita edo banatuta ez badaude; hala nola bere eta ezkontidearenak ondorengoak ere, beti ere, auzi-bidez banatuta ez badaude, 21 urtez beherakoak izan zein adin horretatik gorakoak izan edo gurasoen kontura bizi badira.

Hamasei urte (16) urte beteta izatea eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehen eta derrigorreko erretiroa hartzeko adinera iritsi gabea izatea.

c) Edukitzea gaitasun funtzionala lanpostuko lan eta zeregin propioak egiteko, eta zentzu honetan, ez izatea akats fisiko edo gaixotasunik eragotziko diona lanpostuko funtzio eta betebeharrak gauzatzeko, bazterketarik ezarri gabe muga fisiko edo psikikoengatik, zereginak eta funtzioak betetzearekin bateraezinak diren kasuetan izan ezik.

d) Baztertuta ez izana diziplina-espeditu bidez inolako administrazio publiko eta Autonomia Erkidegoetako estatu- edota konstituzio-organoen zerbitzuetik, ezta auzitegi ebazpen edo epai bidez erabateko edo berariazko gaitasun gabetuta egotea ere kargu publiko edo enpleguetarako, funtzionarioen kidego edo eskalatan sartzeko edota lan legetako langileen kasuan egikaritzen eta gauzatzen dituzten antzerako funtzio publikoak betetzeko. Beste Estatu batekoa izanez gero, ez izatea diziplina-zehapenen menpeko edo, berari dagokion Estatuan, enplegu publikorako sarbidea ukatzen dion zigor-kondenarik ez izatea.

Legezko ezgauza edo batera ezintasun kasuan sartuta ez egotea.

f) Titulazio akademiko honen jabe izatea:

Titulazioa: Arkitekto Tekniko, Eraikuntzako Ingeniari edo Apareladore

g) Hizkuntza eskakizuna edo baliokideari dagokion euskara-titulazioaren jabe izatea.

h) B Motako gida-baimenaren jabe izatea..

Oinari honetan zerrendatutako betebeharrak eta eskakizun guztien jabe izan beharko da eskaerako aurkezteko epea amaitzen den egunean eta horiek zaindu eta mantendu hautaketa prozeduran zehar.

### **Laugarrena.- Eskaerak aurkeztea.**

4.1.-Lan Poltsan parte hartu nahi duten hautagai edo izangaiek eskabideak Audio Herriko Etxeko Herritarren Arretarako Zerbitzuan (HAZ) doan eskuratu ahal izango den eskaera-ereduan hala jasota utzi behar dute (I. eranskina) eta Audio Udaleko web atarian: [www.laudiokoudala.net](http://www.laudiokoudala.net).

4.2.- Eskaerak aurkezteko epea izango da 10 lan egunekoa, ALHAOan deialdia argitaratuta azaltzen den egunaren biharamunetik hasita eta Udaletxeko Sarrera Erregistroan aurkeztu eta entregatu egin behar dira.

Eskabideak entrega daitezke ere Azaroaren 26ko 30/1992 Legeak Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak 38.4 artikuluan zehaztutako edozein lekutan.

Posta bulegoen bidez aurkezten diren eskabideak, ziurtatu aurretik, irekita eman behar zaizkio postako funtzionarioari, hark eguna jarri eta zigilua bota diezaien.

4.3- Eskaera inprimakian agertzen diren betebeharrak eta gaitasun guztiak egokituko zaizkio zorrozkiki eta soilik izangaiak edo hautagaiak dituenak eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunera arte; horiek egiaztatu beharko dira eskaerari erantsitako dokumentazio bidez. Jasota utzi behar dira baloratu behar diren merezimenduak eta horiek egiaztatzeako dokumentuak erantsi beharko dira.

4.4.- Eskaera guztiei emango zaie jaso izanaren adierazpena.

Betebeharrak egiaztatzea:

<b>Betebeharrak egiaztatzea</b>	<b>Dokumentazioa (fotokopia konpultsatuak)</b>
(A eta B) Nazionalitatea eta adina	NAN, pasaportearen edo lan baimena.
C) Gaixotasunik edo akats fisikorik ez izatea.	Sinatutako zinpeko aitortpena (eskaera barruan sartuta.)
D) Diziplinazko espediente bitartez bereizia izandakoa ez izatea.	Sinatutako zinpeko aitortpena (eskaera barruan sartuta).
E) Ez egotea legezko kausan sartuta.	Sinatutako zinpeko aitortpena (eskaera barruan sartuta).
F) Titulazio akademikoa	Titulazio akademikoko ziurtagiria.
G) Euskara: Hizkuntza eskakizuna	Ziurtagiriak: HAEE, Hizkuntza Eskola, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuko salbuespen Ziurtagiria, titulazio homologatua.
H) B motako gida-baimena.	B Motako gida-baimena.

4.5.- Deialdian eskatutako betebeharrak guztiak eta banan bana betetzen ez dituzten izangaiak berez geratuko dira kanporatuta.

4.6.- Eskaerak aurkezteko epea amaituta, Alkatetzak onartuko du behin behineko onartutakoaren eta baztertutakoaren zerrenda, adierazita, azken kasu horretan, baztertzearen arrazoia. Ebazpen hori jende aurrean publikoa egingo da 5 baliodun eguneko epean zehar, Audio Udalaren iragarkien taulan eta Web orrian ipinita [www.laudiokoudala.net](http://www.laudiokoudala.net). Izangaiek erreklamazioak formulatu ahal izango dituzte eta, hala bada kasua, egindako hutsa edo akatsa zuzendu ere, behin behineko zerrenda jendaurrean argitaratuta egoteko dagoen 3 lan eguneko epean zehar.

Erreklamazioak aurkezteko epea amaitu ondoren eta behin horiek ebatzita, Epaimahaiak onartuko du izangai onartu eta baztertuen behin-betiko zerrenda, eta hori argitaratzeko agindua emango du, edo Udaletxeko iragarkien taulan, hala nola Udalaren Web orrialdean z behin behineko zerrendarekiko izandako aldaketei buruzkoa. Ez bada aurkezten ez erreklamaziorik, behin behineko zerrenda, berez behin betikoa bihurtu dela ulertuko da.

## **Bosgarrena.- Kalifikazio-epaimahaia.**

Epaimahaia hauek osatuko dute: presidente bat, idazkari bat eta hiru (3) batzordekide; Bera eraketan doituko da Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuko apirilaren 12ko 7/2007 Legeko 60. artikuluan xedatutakora.

Epaimahaiak aholkulari espezialistak ekarri ahal izango ditu, hautaketa prozesuko ariketei dagozkien proba batzuetarako edo guztietarako, Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legeko 31.2 artikuluan xedatuta dakarrenaren indarrez, euren aholkularitza eta lankidetzaren teknika prestatuta beraien espezialitateetan. Jardungo dute ahotsaz, baina boto eskubide barik.

Epaimahai Kalifikatzaileko kideek ez dute parte hartu behar, Korporazioko Lehendakariari jakinaraziz, Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideko 30/1992 legeko 18. artikuluan aurreikusitako egoeraren bat bateratzen denean; aldi berean, izangaiek errefusa ditzakete aipatu den lege horretarako 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, aurreko artikuluan aurreikusitako arrazoien arteko bat batera suertatzen denean.

Gutxienez ere Epaimahaia eratzten duten kideen erdiek eduki beharko dute hautatze prozesuan parte hartzeko exijitutako ezagutza arlo berberari dagokion titulazioa eta kide guztiek eduki beharko dute eskatutakoaren pareko, maila bereko edo goragoko titulazio akademikoa.

Epai-mahaikide guztiek dute hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea, Idazkariak izan ezik; ez du azken eskumen hori izanen." Epaimahaiaren erabakiak bertaratuen arteko bozka gehiengoz hartuko dira. Berdinketa kasuan Lehendakari arituko denak ebatziko du bere botoaz.

Kide anitzeko organoko titularra kanpoan edo gaixorik badago, edo, oro har, bidezko arrazoirik bada, ordezkoa jarriko da haren tokian, ordezkorik izanez gero.

Epaimahaiak aurkeztuko zaizkion zalantzak erabakitzeko eta oinarri hauetan zehaztuta ez dauden kasuetan hautaketa prozesuaren ordena eta garapen egokirako behar diren erabakiak hartzeko ahalmena du.

Epaimahaia osatzen duten pertsona titular eta ordezkoen izendun zerrenda argitaratuko da hautatze prozesura onartutako eta baztertutako zerrendarekin batera.

Epaimahaiaren ebazpenen aurka jarri ahal da gora jotzeko errekurtsioa Laudio Udaleko alkatearen aurrean, iragarkien taulan ebazpena argitaratuta azaldu den biharamunetik hasitako hilabete bateko (1) epe barruan.

## **Seigarrena.- Sailkapenak eta argitara ematea**

6.1.- Prozesuko sailkapenaren hurrenkera zehaztuko da merezimenduen balorazioan lortutako puntuazioaren bitartez (seigarren oinarriko).

6.2.- Hautaketa prozedura amaitu ondoren eta izan litezkeen balizko erreklamazioei erantzuteko, lan poltsen sailkapenen behin behineko zerrenda Udaletxeko iragarkien taulan eta Web orrian argitaratuko da 5 lan eguneko epean zehar. Erreklamazioak aurkeztu ahal izateko 3 lan eguneko epea izango da, behin behineko zerrenda erakusteko epea amaitu zenetik hasita.

6.3.- Izan diren erreklamazioak Epaimahaiak ebatzi ondoren, lan poltsako sailkapenen behin betiko zerrenda Udaletxeko iragarkien taulan eta Web orrian erakutsiko da.

## **Zazpigarrena.- Hautatzeko prozesua.**

Izangaiek alegatu eta egiaztatutako merezimenduak, onartutakoen behin betiko zerrendan agertuko direnak, baloratuko dira baremo honen arabera:

### 1.- Esperientzia:

- Administrazio publikoari prestatutako zerbitzuak Arkitekto Tekniko / Eraikuntzako Ingeniari / Aparejadore postuetan: 0,3 puntu lan egindako hilabete bakoitzeko, gehienez ere 15 puntu arte.

- Lanbide eskarmentu profesionala sektore pribatuan Arkitekto Tekniko / Eraikuntzako Ingeniari /Aparejadore lanetan: 0,10 puntu hilabete bakoitzeko, gehienez ere puntu 5 arte.

Ez da zenbatuko denbora aldi berberari buruzko aldi bereko eskarmentu edo esperientziarik.

Administrazioko lan eskarmentuari buruzko merezimenduak zuritzea eta justifikatzea egingo da zerbitzuen ziurtagirien bitartez, espezifikatuta kontratuaren iraupena edo izendapenarena eta gauzatutako funtzioak. Enpresa pribatuan izaniko lan eskarmenturako ezinbestekoa izango da lan-kontratua eta Gizarte Segurantzako lan-bizitzaren ziurtagiria.

### 2.- Formazioa, prestakuntza:

- Lanpostuarekin erlazionatutako ikastaroak egitea:

Ikastaroak 20 ordu artekoak: 0,25 puntu.

Ikastaroak 21 eta 40 ordu artekoak: 0,5 puntu.

Ikastaroak 41 eta 80 ordu artekoak: puntu 1

Ikastaroak 81 eta 100 ordu artekoak: 1,5 puntu.

Ikastaroak 100 orduetik gorakoak: 3 puntu.

Baloratu ahal izateko eginiko ikastaroen dokumentu egiaztatzaileak, IVAPek edo zentro ofizial aitortuak emanikoak izan behar dira eta jasoarazi beharko dute ikastaro horren ordu zenbatekoa.

Froga horren balorazioa 5 puntukoa izango da gehienez.

3. Euskara: Ez da euskara frogarik egingo. Eskatzaile, hautagai edo izangai bakoitzaren ardura eta erantzukizuna da lortuta daukan perfila egiaztatzea (IVAP-HAEE, Hizkuntza Eskola, HABEren ziurtagiria edo beste titulazio homologaturen baten bitartez ala apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuko salbuespen ziurtagiria).

## **Zortzigarrena.- Zerrenden funtzionamendua.**

8.1- Zerrendaren funtzionamendua egokituko zaio Audio Udaleko onartutako lan poltsak kudeatzeko irizpideen azken Akordioari, zeinek erabakita dakarren hauxe:

“Lan poltsak kudeatzeko irizpide nagusiak eta orokorrak.

1. Lehenik, joko da bete behar den lanpostua sailkatutako dagoen Eskala, Azpieskala eta Klaserako plazak deitutako EPE (Enplegu Publikoaren Eskaintza) baten ondoriozko lan poltsara eta, ordezkio izaeraz, lanpostu edo plaza horiek betetzeko alde aurreko deialdi batetik legokeen lan poltsara.

2. Aurrekorik ez balego, langile-ordezkaritza entzun ondoren, erabil daitezke beste poltsa batzuk gauzatu beharrekoen artean eta eskatutako titulazio mailan antzekotasunik badagoenean, beti eta hautatutako pertsonak dagokion lan posturako EPEko Oinarrietan eskatutako betebeharrak betetzen baditu, edo horiek ezean, lanpostuen zerrendan zehaztutakoak.

3. Inolako lan poltsarik ez badago, langileen ordezkariaren zer esana entzunda, lanpostua betetzeko deialdi bat egin liteke edo publizitate, merezimendu eta gaitasun betebeharrak betetzen dituzten beste Herri Administrazio batzuetako lan poltsetara jo liteke, eta lanpostu horri dagozkion Audio Udaleko EPEren Oinarrietan exijitutako betebeharrekin, eta horien ezean, Audio Udaleko Lan Postuen Zerrendan seinalatuarekin bat.

Lan poltsak batera direnean lehentasun irizpideak.

Lan poltsa bat baino gehiago batera suertatzen badira hautagai bila, ondorengo lehentasun irizpideak izango dira kontua:

1. Enplegu Publikoaren Eskaintzen ondoriozko lan poltsak edo/eta Audio Udalaren hautatze prozedurak gailen dira eta beste hautatze prozedura batzuen emaitzen gainetik daude.

2.- Lan Poltsa berrienak gailen dira antzinasunik luzeena dutenarekiko.”

8.2.- Errekeritutako zerbitzuen prestazioa egingo da behin betiko sailkapen-zerrendan ateratako sailkapen hurrenkera zorrotza gordeta. Lanerako deiak beti hasiko dira puntuaziorik altuena duen egiten ari den kontratazioaren xede den lan postuaren zereginak gauzatzeko ezinbesteko betebeharrak eta baldintzak betetzen dituen pertsonagandik.

Kontratua edo bitarteko funtzionario aldia amaitu ostean, hautatuta egon den pertsonaren izena bueltatuko da irten den lan poltsarako zerrendara, zeukan hurrenkera posizio berberari eutsiz.

8.3.- Funtzio Publiko eta Lan Harremanen Arloak aztertuko du dokumentazioa eta bete behar den lanpostuko zereginak gauzatzeko beharrezko betebeharrak betetzen dituen ala ez.

8.4.- Eskatutako dokumentazioa aurkezten ez dutenek, edo dokumentazio aztertu eta bertatik ondorioztatzen bada oinarrietan seinalatutako betebeharren arteko bat ez dutela, edo ez direla benetan egia alegatutako pertsonaren inguru abarrak, ezin izango dute formalizatu kontratua eta egin dituzten aktuzio guztiak baliogabetuta geratuko zaizkie, faltsukerian aritzeagatik izan lezaketen erantzukizunaren kalte barik eta berehala kaleratzeko kausa izango dira, jabetza hartzea formalizatuta eta egikarituta badago. Kasutan horietan, lan poltsetan behin betiko baja emango zaio.

8.5.- Aukeratutako hautagai izangaiak dagozkion mediku errekonozimenduak egin beharko dituzte, lana era normalean gauzatzeko “gaitasuna” zehazte aldera.

8.6.- Alkateak, edo Funtzio Publiko eta Lan Harremanen Arloko berariazko ordezkariak lagapenaren bitartez, bitarteko funtzionario interino legez jabetza hartzeko proposamen aurkeztuko dio organo eskumendunari.

8.7.- Puntu berdintze kasuan, sailkapen hurrenkera zehaztuko da, kontuan izanik, lehenik, eskarmentu eta esperientziagatik merezimenduen balorazioan puntuaziorik handiena lortu duen izangaiaren alde, bigarrenik, puntuaziorik handiena lortu duen izangaiaren alde Hizkuntza

Eskakizuna HE perfilaren baremoan puntu gehien atera duen hautagaiaren alde eta, bigarrenik, ezagutza eta jakite frogan puntu gehien atera duen hautagaiaren alde eta, azkenik, zozketaz.

Aurreko paragrafoan arautuaren kalte barik, otsailaren 18ko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Eusko Legebiltzarreko 4/2005 Legeko 20.4 a) artikuluan xedatutakoarekin batera, gaitasun berdinarekiko, lehentasuna emango zaio emakumeari, emakumearen ordezkapena ehuneko 40 baino gutxiagokoa den plazetan, salbu eta beste izangaiaren batera biltzen badira beste arrazoi batzuk, sexu arrazoiagatik bereizkeria ez izanik, neurri horren ezarpena eta aplikazioa justifikatuko luketenak, hala nola enplegurako sarrera eta sustapen zailtasunak bereizkeria beste kolektibo batzuetako kide izatea.

8.8.- Prestazioaren iraupena motibatu sorrarazi duen kausak eta arrazoiak mantentzen diren bitartean beharrezkoa den denboran zeharrekoa izango da; baina, arrazoiak desagertuz gero efekturik gabe, amaituta, geratuko da berez eta automatikoki."

8.9.- Froga aldia. Kontratazio edo bitarteko funtzionario interino izendapen objektu den izangai bakoitzak hogeita hamar lan eguneko froga aldia izango du; froga aldi horretan hartu duen kargutik ken daiteke, aurretiko Arloko Buru edo Arduradunaren txostenaz eta interesatuari entzunaldia eskainita.

8.10.- Lan eskaintzen komunikazioak egingo dira Audio Udaletxeko Lan Poltsak Kudeatzeko Irizpideen Akordioan aurreikusitako prozeduren bidez.

8.11.- Ez bada onartu egin zaion lan eskaintza justifikatu gabeko arrazoi bategatik, horrek erakarriko du lan poltsatik behin betiko baja ematea, eta hori jakinarazi egingo zaio idatziz interesdunari.

Lan Poltsak Kudeatzeko Irizpideen Akordioan aurreikusitako "justifikatutako kausak" ere hartuko dira kontuan.

### **Bederatzigarrena.- Oinarrien interpretazioa.**

9.1.- Oinarri hauek aplikatzerakoan sortu ahal diren duda mudak ebatziko ditu Funtzio Publiko eta Lan Harremanen Arloak, Pertsonal Batzordearekin bilduta.

### **Hamargarrena.- Lan Poltsaren indarra.**

10.1.- Deialdi honen babesean gauzatutako hautaketak balio iraupena edukiko du Herriko Etxeko Iragarkien Taulan behin betirako argitaratzen denetik hasita.

### **Hamaikagarrena.- Azken araua.**

Deialdiko oinarri hauek, arautzen duten deialdia eta bertatik eta Epaimahaia Kalifikatzailearen egintzetatik ondorioztatuko diren egintza administratibo guztiak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideko 30/1992, Azaroaren 26ko, Legean ezarritako kasuetan eta formaz aurkaratu ahal izango dira.

## **I. Eranskina**

Lan poltsarako eskaera

### Datu Pertsonalak

Abizenak: 1. \_\_\_\_\_ 2. \_\_\_\_\_

Izena: \_\_\_\_\_

Adina: \_\_\_\_\_ Jaiotze Data \_\_\_\_\_ NAN: \_\_\_\_\_

Helbidea: \_\_\_\_\_

Udalerrria \_\_\_\_\_ Posta kodea \_\_\_\_\_ Probintzia \_\_\_\_\_

Telefonia \_\_\_\_\_ Titulazio Akademikoa \_\_\_\_\_

### Aurkeztutako Dokumentuak

- |   |   |
|---|---|
| <input type="checkbox"/> NAN / PASAPORTEA     | <input type="checkbox"/> HIZKUNTZA ESKOLA ZIURTAGIRIA   |
| <input type="checkbox"/> TITULAZIO AKADEMIKOA | <input type="checkbox"/> HAEE, HABE ZIURTAGIRIA, 47/2012<br>DEKRETUARENSALBUESPEN ZIURTAGIRIA<br>EDO BAIOKIDE |
| <input type="checkbox"/> GIDATZEKO KARNETA    |   |

(egin X marka dagokion laukian)

### Zinpeko Aitorpena

..... jaunak / andreak, ..... zk.dun NAN, Pasaportea edo Lan baimenaz AITORTU DU:

- 1.-Lanpostuko lanak normal betetzea eragotziko lukeen gaixorik edota akats fisikorik ez izatea.
- 2.- Diziplina espedientez ez dela baztertua izan inongo Administrazio Publikoren zerbitzutik eta ez dagoela ezgaituta funtzio publikoak gauzatzeko.
- 3.- Ez dagoela Lege ezgaitasun edo bateraezintasun egoeran.

Laudio, 2015eko \_\_\_\_\_ ren \_\_\_ a

Sinadura:

Laudioko Udaleko Alkate-Lehendakari Jauna

Erabaki honekin Administrazio bidea amaitu da. Erabakia aldekoa izan ala ez, aurkaratu nahi izanez gero, Administrazioarekiko Auzitara jo aurretik berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke jakinarazpena jaso denetik hasita hilabete bateko epearen barruan. Hala ere, zuzenean jar daiteke Administrazioarekiko auzia aurkarapen egilearen aukeraren arabera Gasteizko Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian edo bere aurkaratzailearen helbideko Administrazio Auzitegian, erabakia argitaratu eta bi hilabeteeko epearen barruan.

Guzti hori, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, 109 c) 116, 117 eta batera datozen artikuluetan xedatutakoaren arabera, hala nola uztailaren 13ko Administrazioarekiko Auzitarako juriskikzioaren 29/1998 Legeko 8, 14, 25, 46, eta batera datozen artikuluetan.

Eta hori, egikaritzea egoki irizten den beste edozein egintza edo errekurtsoren kalterik gabe.

Laudio, 2015eko martxoaren 6a.- alkatea, Jon Iñaki Urkixo Orueta.